



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maiatzaren 16a

65. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- 10-23/PES-00031. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arau-garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3.or.).
- 10-23/PES-00032. Galdera, Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5.or.).
- 10-23/PES-00033. Galdera, Caparrosoko abeltegizarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10.or.).
- 10-23/PES-00034. Galdera, orain arte Kattalingunek betetzen zituen eta orain Gizain Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuei eta NABIk bere gain hartzen dituen eginkizunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12.or.).
- 10-23/PES-00035. Galdera, Kultur Eskubideei buruzko Legeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13.or.).
- 10-23/PES-00036. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren ekintzak, “Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoia” programa-akordioan jasotakoak, betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20.or.).
- 10-23/PES-00037. Galdera, , Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen garapenean eta aplikazioan egindako aurrerabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20.or.).
- 10-23/PES-00038. Galdera, jakiteko Gizain Fundazioan lanean ari diren langileetatik zenbat dauden AUNA proiektuari lotuta. Foru Diputazioaren erantzuna (23.or.).
- 10-23/PES-00039. Galdera, Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langilei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25.or.).
- 10-23/PES-00040. Galdera, premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langilei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26.or.).
- 10-23/PES-00041. Galdera, Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langilei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27.or.).

- 10-23/PES-00042. Galdera, Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29.or.).
- 10-23/PES-00043. Galdera, Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31.or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-23/PES-00031. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arau-garapenari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arau-garapenari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 3ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballeroak galdera bat aurkeztu du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legeak zer arau-garapen duen gaur egun eta legealdi hau amaitu aurretik legea garatzeko zer aurreikuspen dituen Kultura eta Kirol Departamentuak (10-23/PES-00031). Hona Kultura eta Kirolleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen xedea honako hau da: "Nafarroan kirol arloko lanbide jakin batzuetan hasteko eta aritzeko oinarrizko alderdiak arautzea. Berariaz adieraziko da zeintzuk diren lanbide horiek, lanbide bakoitzaren jardun-eremu funtzional orokorra ezarriko da, eta aditzera emanen da lanbide horietan sartzeko zer kualifikazio eskatzen den".

Foru lege horren xedapen iragankorretan eta azken xedapenetan hainbat data jasotzen dira, halako moduan non hortik aitzina zeharo galdagarriak izanen baitira foru legean jasotako betebeharrak. Hala, 2021eko irailaren 1a izanen zen

azken eguna kirol-lanbideetan aritzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko, Nafarroako kirol-federazioek federazio-arauak foru lege horretara egokitzeko eta, azkenik, lanbide horietan sartzeko eskatzen diren kualifikazioak exijitzeko. Kirol arloko profesionalen lehen laguntzako kualifikazioa exijitzeari dagokionez, legeak ezarri zuen 2020ko abenduaren 31 izanen zela azken eguna.

Betekizun horiek egiaz bete ahal izan zitezen, behar-beharrezkoa zen erregelamendu bidez garatzea apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea, honako arau hauek onetsita:

– Nafarroan kirol arloko lanbideetan aritzeko lehen laguntzako prestakuntza akreditatzeari buruzko Foru Dekretua.

– Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko Foru Dekretua.

– Nafarroako Kirolaren Erregistroari buruzko Foru Dekretua.

COVID-19ak 2020ko martxotik aitzina eragindako osasun krisiak eta alarma-egoeraren deklaraziotik heldu ziren neurri murriztaileek eragotzi zuten behar bezala izapidetzea foru lege horretako erregelamendu-xedapenak edo administrazio-antolamendua egokitzea ezarri beharreko prozesuetara. Xedapen horiek izapidetzeko beharrezkoa zen Eskubide Sozialetako Departamentuarekin (Nafar Lansare), Osasun Departamentuarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin aritzea lankidetzan, haien eskumenei eragiten baitie, baina departamentu horiek beren jarduketan bolumen handi bat bideratu behar izan zuten Nafarroan osasun krisia kudeatzera, eta ezin izan zituzten behar ziren baliabide guztiak bideratu lankidetzara horretara.

Ondorioz, ekainaren 17ko 6/2020 Foru lege-dekretuaren azken xedapenetako laugarrenaren

bidez aldatu egin zen Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/17 Foru Legea. Foru lege horretan aldatu ziren apartatuen artean honako hauek zeuden:

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorra, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen Nafarroako Kirol Federazioek beren erregelamendua foru legean ezarritakoari egokitzeko zeukaten epea.

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorra, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen epe hori baino lehen kirol arloko lanbideren batean jardun zirenek eta epe horretatik aurrera lanbide horietakoren batean jardun nahi zutenek aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko.

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen azken xedapenetako laugarrenaren 2. apartatua, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen foru lege horren bidez araututako lanbideetan aritzeko gaitasuna ematen duten lanbide-kualifikazioak exijitzen hasteko epea.

2022an, Nafarroan kirol arloko lanbideetan aritzeko lehen laguntzako prestakuntza akreditatzeari buruzko ekainaren 15eko 63/2022 Foru Dekretua (2022ko uztailaren 1eko 130. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

2022ko irailaren 1era iritsita, artean onetsi gabe zeuden Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko Foru Dekretua eta Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen Foru Dekretua.

Hortaz, 2022ko irailaren 1etik aitzina, apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean eskatzen diren titulazioak eta lanbide-kualifikazioak dauzkatenean soilik jardun dezakete foru lege horren bidez araututako kirol arloko lanbideetan. Ondorioz, ez zenez egun hori baino lehen araubiderik onetsi lanbide horietan jardun ahal izateko laneko esperientziari esker edo prestakuntzako bide ez formalen bidez, gertatzen dena da kirol arloko lanbide horietan egun jardun duten pertsonarik gehien-gehienak ezindurik daudela horretarako. Une honetan, dagoen eskariari behar bezala erantzuteko foru legearen arabera eskatu beharreko kualifikazioa duten profesionalen faltari gehitu behar zaizkio prestakuntza ofizialeko eskaintza eskasa eta lanbide-gaitasunen errekonozimendu-gailuak ezartzeko zailtasuna. Gauzak horrela, Nafarroan kirol arloa garatzeari eta funtzionatzeari dagokienez kalte konponezina eragin dezake foru legean ezarritako titulazioak eta lanbide-kualifikazioak exijitzaiek,

baldin eta ez bada lehenago onesten gaikuntza-araubide hori: Bai kirol entitateen esparruan, bai kirol zerbitzuak ematen dituen enpresa-sektorean.

Horrenbestez, uste dugu behar-beharrezkoa dela 2022ko irailaren 1era iritsita, artean onetsi gabe zeuden Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko foru dekretu bat onestea, foru legean ezarritako lanbide-kualifikazioak egiaz eskatu aitzin.

Bestalde, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzeko foru dekretua ere onetsi ez denez, interesdunek ezin duten erregistroan izena emateko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu.

Hortaz, Nafarroako Kirolaren Erregistroaren araubidea onetsi beharra dago. Egokitu egin behar dira epeak, bat etor daitezten bi epe hauek: erantzukizunpeko adierazpena exijitu ahal izateko epea eta lanbide horietan jardun ahal izateko foru legean exijitzen diren lanbide-kualifikazioak exijitu ahal izateko epea.

Kultura eta Kirol Departamentua hasita dago bi foru dekretu horiek izapidetzen; halatan, 2019an egin zen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea.

Bi foru dekretu horiek onesteko egin beharreko izapideak kontuan hartuta (jendaurreko informazioaren izapidea, egin beharreko txostenak eta oroitidazkiak, sindikatuei kontsulta egitea, eta abar), eta kontuan hartuta, orobat, 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak eginen direla (horrek eragina izanen du Nafarroako Gobernuaren eta departamentuen eguneroko jardunean), epea 2024ko urtarrilaren 1era arte luzatu behar zela ikusi zen, foru dekretu horiek onesteko behar adina denbora izateko.

Horiek horrela, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen azken xedapenetan hirugarrenaren bidez aldatu egin zen Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/17 Foru Legea, halako moduan non 2024ko urtarrilaren 1era bitarte luzatu baitziren idazki honetan adierazitako epeak.

Ondorioz:

– Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/17 Foru Legearen garapenez, Nafarroan kirol arloko lanbideetan aritzeko lehen laguntzako prestakuntza akreditatzeari buruzko ekainaren 15eko 63/2022 Foru Dekretua onetsi da.

– Kultura eta Kirol Departamentuak 2023an zehar onetsi nahi du ditu Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko Foru Dekretua eta Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen Foru Dekretua. Hori guztia, apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean ezarritako epeak betetze aldera egingen da.

Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena Nafarroako Kirolaren Kontseiluaren osoko bilkuretan aztertu da. 2021eko abenduaren 13ko bilkuran, aktaren araberako, zenbait kontseilukidek gaiari buruz zuten iritzia adierazi zuten; haien ustez, beharrezkoa da oreka bat bilatzea, lanbide batean jardun duten

pertsona guztiek izan ditzaten izan beharreko tituluak eta prestakuntza, prestakuntza hori ez duten pertsonak ere laguntza-zereginetan eta kirol arloan lankidetzan arituta jardun bidenabar; izan ere, Nafarroako kirol-ehuna, neurri handi batean, boluntarioek eta titulaziorik gabekoek sostengatzen dute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 21ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **10-23/PES-00032. Galdera, Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain Carlos Mena Blasco jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 3ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak idatzizko galdera egin du (10-23/PES-00032), jakin nahi baitu Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei dagokienez, zer analisi egiten duen Kultura eta Kirol Departamentuak. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen dion informazioa:

Kultur Ekintza Zerbitzuak laguntza deialdi hauek egin ditu arte eszenikoetako eta musikale-

tako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta:

1. Arte eszeniko eta musikaletako produkziara-ko dirulaguntzak enpresa eta profesionalentzat (Artem Pro 2022)

2. Artem Exporta 2022. Arte eszeniko eta musikaletako profesionalentzako laguntzak birak egiteko eta azoketan parte hartzeko

3. Artem Festival 2022 dirulaguntza. Enpresek eta profesionalak antolatzen dituzten arte eszeniko eta musikaletako jaialdiak eta lehiaketak.

4. Nafarroako arte eszeniko eta musikaletako hirugarren sektoreko entitateentzako dirulaguntzak jaialdiak, kontzertuak eta ikuskizunak finantzatzeko. 2022

5. Nafarroako Foru Komunitatean adierazgarritasuna eta Estatuan proiektzioa duten arte eszeniko eta musikaletako hirugarren sektoreko entitateentzako dirulaguntzak. 2022

Deialdi horiek norgehiagokaren bidez tramitatzeko dira. Oinarri arautzaileen diseinuak printzipio hauek betetzen ditu:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera da.

- Dirulaguntzek xede bati lotutako eta denbora esparru batean kokatutako gastua estaltzen dute;

zehaztuta dauzkate gehieneko intentsitatea, onartutako guztizko gastuaren gaineko ehuneko gisa adierazia, eta muga absolutua, hau da, eskaera bakoitzari eman ahal zaion gehieneko zenbatekoa (ikusitako xehetasunak oinarri arautzaileak onetsi dituzten foru aginduetan).

- Kultur proiektu eta inbertsioen defizita murrizten laguntzea dute helburu.

- Jaialdiak, kontzertuak eta ikuskizunak (hirugarren sektorea) finantzatzen dituen deialdiak bi modalitate ditu, A eta B, proiektuen aurrekontua 50.000 eurotik beherakoa edo gorakoa den.

- Kultur Ekintza Zerbitzuan (KEZ) egokitzen josten dugu gogora ekartzea hirugarren sektoreko entitateentzako deialdietako bik, hain zuzen ere adierazgarritasunarenak (aurreko zerrendako laugarrena) eta jaialdienak (bosgarrena) gastu diruz lagungarri gisa onartzen dituztela egitura gastuak, jardueraren gastuez gain. KEZen gainerako deialdietan jardueraren gastuak bakarrik estaltzen dira.

2022ko deialdi/modalitate bakoitzeko entitate onuradun bakoitzaren justifikazio kontua eskema honetan laburbiltzen da:

DEIALDIA	PARTIDAKO AURREKONTUA	EMANDAKO DIRULAGUNTZAK GUZTIRA	ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA GUZTIRA	ALDEA (EMANDA / ORDAINDUTA)
Artem Pro	330.000,00	292.943,92	236.719,81	% 80,81
Artem Exporta	24.000,00	21.383,51	8.541,32	% 39,94
Artem Festival	100.000,00	95.700,00	90.398,91	% 94,46
Hirugarren sektoreko jaialdiak, aurrekontu handiko mod.	426.000,00	242.353,14	176.252,87	% 72,73
Hirugarren sektoreko jaialdiak, aurrekontu txikiko mod.		150.935,88	115.030,11	% 76,21
Adierazgarritasuna. Kulturaren hirugarren sektorea	480.000,00	480.000,00	358.055,69	% 74,59
SEM Arte eszeniko eta musikalen azpiegiturak	383.163,78	227.120,58	206.810,70	% 91,06

PES 23-00032 galderan aipatzen den *analisi* hitza bi zentzutan interpretatu du Kultur Ekintza Zerbitzuak:

- Xehetasunezko analisiaren prozesua egitea, deialdiaren oinarri arautzaileak eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen esparrua aplikatuta. Uni-

- extr@ espedientea
- Entitate onuraduna
- Proiektuaren izena
- Onartutako gastua
- Emandako dirulaguntza
- Dirulaguntzaren ehuneko
- Justifikatutako gastua
- Betetzearen ehuneko
- Ordaindu beharreko zenbatekoa (guztira, aurrerakinak eta konturako ordainketak barne, halakorik bada)
- Superabita Bai/Ez
- Zigorra, epea ez betetzeagatik Bai/Ez
- Ordaindutako zenbatekoa

Gainera, deialdi/modalitate bakoitzaren balantze orokorra azaltzen da: ordaindutakoa, emandakoaren aldean (zenbatekoa eta ehuneko)

tate kudeatzaileak analisi hori egiten die entitate onuradunek bidalitako eskaerei eta dokumentazioari, emandako laguntzak justifikatzeko eta ordaindu edo likidatzeko fasea tramitatzen duenean. Eskaeren eta emandako laguntzen laburpena jaso da taula hauetan:

	Aurkeztutako eskaerak	Diruz lagundutako entitateak	Ematea (%)
Arte ikasketetan sakontzeko bekak - ÁGORART 2022	27	12	% 44
Idea 2022. Kultur entitateentzako dirulaguntza, kultur zabalkundeko proiektuak gauzatzeko. 2022	13	11	% 85
Dirulaguntzak Nafarroako udalerrientzat, arte eszeniko eta musikal profesionalen programazioa sustatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udal espazio eszenikoetan	33	33	% 100
Nafarroako udalerrientzako dirulaguntzak, Artea eta Kultura programa osatzen duten arte eta kultur jarduerak egiteko. 2022	129	129	% 100
Artem Festival 2022. Enpresek eta profesionalen antolatutako arte eszeniko eta musikaletako jaialdi eta lehiaketak egiteko dirulaguntza. 2022	8	7	% 88
Artem Exporta 2022. Arte eszenikoetako eta musikaletako profesionalentzako laguntzak birak egiteko eta azoketan parte hartzeko. 2022	10	8	% 80
Artem PRO. Arte eszenikoetako eta musikaletako produkziarako dirulaguntza. 2022	19	15	% 79
Arte sorkuntzako mintegi eta fabriketarako laguntzak. 2022	10	2	% 20
Mugaz gaindiko kultur proiektuetarako dirulaguntzak. EUROESKUALDEA. 2022	9	4	% 44
Nafarroako Foru Komunitatean adierazgarritasuna eta Estatuan proiektzioa duten arte eszeniko eta musikaletako hirugarren sektoreko entitateentzako dirulaguntzak. 2022	8	7	% 88
Nafarroako arte eszeniko eta musikaletako hirugarren sektoreko entitateentzako dirulaguntzak jaialdiak, kontzertuak eta ikuskizunak finantzatzeko. 2022	34	22	% 65
SEM. Azpiegitura eszeniko eta musikaletan inbertsioak egiteko proiektuetarako dirulaguntza, Eraldatze, Suspertze eta Erresilientzia Planaren kargura. 2022	21	6	% 29
Nafarroako hiriz kanpoko eremuetan eskaintza handitu eta dibertsifikatzeko proiektuetarako laguntzak, Eraldatze, Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2022	25	15	% 60
Generazinea jaialdiak. 2022	4	4	% 100
Generazinea jaialdiak. 2022	24	18	% 75
Generazinea jaialdiak. 2022	16	8	% 50
Generazinea jaialdiak. 2022	8	8	% 100
Generazinea jaialdiak. 2022	16	13	% 81
<b>GUZTIRA</b>	<b>414</b>	<b>322</b>	<b>% 77,78</b>

• Kudeaketari eta emaitzen ebaluazioari buruzko informazioa lortzeko analisiak barnean hartzen du lortutako datuak oinarri izatea erabakiak hartzeko hurrengo deialdietan eboluzioaren edo hobekuntzen beharra izateari buruz. Alderdi hori hurrengo eskeman azaltzen da (lehen adierazitako deialdiak erreferentzia hartuta, betiere). Beste ikuspegi horren arabera, jarraian azaltzen da zer ohar egin diren eta zer ondorio atera diren adierazitako esparruari buruzko informazioan oinarrituta:

#### **2022ko deialdietan azken justifikazioaren fasea tramitatzean azaldu diren kasuak**

• Ordaintzeko eskaera epez kanpo aurkeztea. Zigorra dakar (atzerapenaren neurrikoa), baina ez

da ukatzen ordainketa. Are gehiago, kasu batean, gutxienez, epea amaitu eta handik 20 egunera unitate kudeatzailea bera jarri zen harremanetan interesdunarekin, laguntzari uko egin ote zion pentsatuta.

• Entitate onuradunak gastua edo ordainketa ez justifikatzea (gastuaren edo ordainketaren frogagiririk eza): entitateak aurkeztutako gastuen gutzizko zenbatekoa txikiagoa izatea, neurri desberdinetan, dirulaguntza ematean kontuan hartutako hasierako aurrekontua baino. Justifikazio eza kasu guztietan egiaztatu da likidazio ebazpena jakinarazi eta gero, entitate onuraduna bere omisioaz ohartu eta epez kanpo beste justifikazio bat

aurkezten saiatu denean, aurrekoa osatu edo zuzendu behar zuena.

- Gastua justifikatuzat ez onartzea, gastu diruz lagungarria ez izateagatik:

- Egiatzatu gabeko bidaiak, diruz lagungarriak ez diren bazkari edo afariak, luxuzko gastuak (sariak eta bestelakoak).

- Fakturen edo ordainketaren frogagiriaren datak deialdiaren denbora esparrutik kanpokoak izatea.

- Fakturak entitate onuraduna ez den beste baten izenean egotea.

- Oinarri arautzaileetan ezarritako mugak gainditzea (zeharkako gastuak, teknikari edo laguntzaileen gastuak, etab.).

- Estreinaldia Nafarroan izatearen baldintza ez betetzea (Artem Pro). Zigorra aplikatzen da, baina ez da ukatzen ordainketa.

- Superabita izatea, diru-sarrerak gastuak gaindituta.

- Jasotako laguntzaren xede zen jarduera egin ez izana.

#### **Gora jotzeko errekurtsioak**

Orain arte gora jotzeko zenbait errekurtsio jaso dira. Batez ere, entitate onuradunen errakuntzak eta ahazteak alegatu dira, eta justifikaziorako dokumentazio berria bidali da epez kanpo. Dokumentazio horretan, behar zenean aurkeztu ez ziren fakturak eta ordainketaren frogagiriak sartu dira gehienbat, bai eta igorpen datan, hartzailearen identifikazioan edo kontzeptuan aldaketak eginda berriz igorri diren fakturak ere (baina zuzentzaileak ez direnak). Ordaintzeko eskaera deialdiaren oinarrietan ezarritako epetik kanpo aurkezteagatik aplikatutako zigorraren kontrako alegazioak ere jaso dira. Zigor hori epez kanpo aurkeztutako eskaera guztiei aplikatzen zaie (deialdi honetan eta unitate kudeatzaileak tramitatzten dituen deialdi guztietan).

#### **Zuzentzeko eta hobetzeko ekintzak**

Kultur Ekintza Zerbitzuak hobekuntzak aplikatu ditu oinarri arautzaileen idazketan, argitzen, ordenatzen eta errazten ahaleginduz (betiere Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezarritako esparruan). Amaierako justifikaziorako eredu espezifikoa ere ezarri dira, eta gastuen adierazpenerako Excel orria berriz diseinatu da, entitate onuradunek tramiterako datu-egitura egokia izan dezaten. Automatikoki ere egiten dira justifikazio kontua ezartzeko egin beharreko kalkuletako batzuk. Diruz lagundutako jarduerari edo jardueri egotzitako gastuak eta diru-sarrerak adieraztea

eta frogatzea entitate onuradunen zuzeneko arduradunak; tresna horiek deialdi bakoitzerako berrikus-ten dira, eta baliagarriak dira funts publikoak jasotzen dituenak behar bezala kontuak eman ditzan.

Beste alde batetik, ohikoa da edizio bakoitzean deialdiak onetsi eta gero haien berritasunen eta alderdi garrantzitsuen aurkezpenak egitea entitate adierazgarriari edo entitate jakin batzuei.

Entitateek une oro eskura dituzte tramiteen katalogoko fitxak [www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus) webgunean. Bertan oinarri arautzaileak kontsultatu ahal dira, eta egin beharreko jarduketetarako ereduak deskargatu, eta teknikariekin harremanetan jartzeko erreferentzia ere badago (telefono zenbakia eta helbide elektronikoa) era guztietako kontsultak egiteko.

Tramiteen katalogoaz gain, deialdiak aditzera ematen dira:

- Prentsa oharren bidez, onesten direnean edo NAOn argitaratzen direnean.

- CulturaNavarra aldizkarian, onesten direnean edo NAOn argitaratzen direnean.

- NAOn bertan.

- CulturaNavarra sare sozialetan.

### **DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA**

#### **Eskaerak aztertzea**

Entitate edo pertsona onuradunek berariaz prestatu diren eranskinak erabili behar dituzte, oinarri arautzaileetan zehazten den informazioa jasotzeko erata daudelako eta ez delako baliozkoa bestelako formula bat erabiltzea; izan ere, ez lirateke osorik egonen behar diren datu guztiak.

Jasotako eskaera baten dokumentazioa ez badator bat oinarrietan gastuak eta diru-sarrerak egiaztatzeko aurreikusitako egiturarekin eta kategoriekin, edo fase honetarako aurkeztu beharreko agiri guztiak ez baditu (oroitidazkia, taula, fakturen eta ordainketa-frogagiriaren bilduma, zabalkunderako elementuak), hura zuzentzeko eskatzen da, guztieneko epe bat ezarrita, eta ohartarazten da eskatutakoa epe horretan egin ezean ordainketa ukatuko dela, atzera egin dela ulertuta. Ez da eskatzen aurkeztu ez diren faktura edo frogagiri solteen zuzenketarik, entitate onuradunaren betebeharra baita diruz lagundutako jarduerari dagozkion gastu guztiak frogatzea; ez eta oinarri arautzaileen arabera diruz lagungarriak ez diren gastuei dagozkien fakturen edo ordainketa-agiriaren zuzenketarik ere.



Eskaera epez kanpo jasotzen bada, gainera, bidezkoa da zigor proportzionala ezartzea, ordaindu behar litzatekeen diru kopurutik kenduko dena. Aplikatzen den formula atzerapen denboraren arabera eta tramitatze dagoen denborarekin lotuta diseinatu da. Laguntza hauek kudeatzen dituen unitatearen kasuan, aurrekontu itxierari buruzko foru aginduaren arabera egiten da, bertan sartutako muga-eguna adierazten da, eta kontu-hartzaile-tza delegatuaren fiskalizazioa behar duen ordainketa oro tramitatu izana eskatzen da. 2022ko ekitaldian egun hori abenduaren 24a izan zen. Horra formula:

- Deialdian ezarritako epe amaierako data eta entitate onuradunak eskaera aurkeztu duen data erkatzea.

- Batetik bestera zenbat egun igaro diren kalkulatzeko.

- Atzerapen egunen kopuru hori proportzionaltasun erlazioan jartzea deialdian ezarritako epe amaierako datatik ordainketa guztiek fiskalizazioarako bidalita egon behar duten datara arteko egun kopuruarekin (azken data hori aurrekontu itxierako foru aginduan ezartzen da).

- Horrela kalkulaturako ehunekoa zigor gisa aplikatzen zaio ordaindu behar litzatekeen zenbatekoari.

- Dena egun naturaletan zenbatzen da.

### **Berrikuspenaren, justifikazio kontuaren eta ordainketa-proposamenaren prozesua**

Eskaera jaso eta, kasua bada, zuzenketa egin ondoren, eskema honen arabera egiten dira lanak:

- **PROFIL ADMINISTRATIBOA:** Aurkeztutako taula, aurretiazko baldintzak eta erantsitako agiriak aztertzea: egiaztatu behar da aurkeztutako taulan ageri direla erantsitako agiri guztiak (fakturak, ordainketaren frogagiriak eta, kasua bada, diru-sarreraren ziurtagiriak); jaso diren datuak bat datozela zehatz-mehatz aurreko puntuko agirietan jasotakoarekin; fakturak entitate edo pertsona onuradunari zuzenduta daudela; eta detektatutako gorabeheren oharrak jaso direla. Gainera, egiaztatzen da ez dagoela Gizarte Segurantzarekiko edo Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zorrik eta aurkeztu direla gardentasuna, mezenasgoa eta deial-

diaren arabera behar izan daitezkeen beste batzuk.

- **PROFIL TEKNIKO:** Jada administratiboki balidatutako taula berrikustea. Egiaztatzen da sartutako gastu guzti-guztiak diruz lagungarriak direla, kontuan izanda deialdiaren helburua, gastu diruz lagungarrien kategoriak, zenbait gastu motak dituzten mugak, kontzeptuaren eta diruz lagundutako jardueraren arteko lotura, eta abar. Gainera, zehatz adierazten dira aurkeztutako gastuak baztertzeko arrazoiak, gero informazio hori entitate edo pertsona onuradunari eman beharko baitzaio. Gero egiaztatzen da zer diru-sarrera egozten zaizkion diruz lagundutako jarduerari, eta inkoherentzia edo bateraezintasunik hautematen den adierazten da. Oroitidazkiak eta zabalkunderako euskarriak ere egiaztatzen dira, ea betetzen diren aplikatu beharreko Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen artikuluetako berariazko baldintzak, eta abar.

- **APT (A.E.) PROFILA:** Justifikazio kontuaren konfigurazioa: Profil teknikoak jada balidatutakoa errepasatzeko berrikuspena, akatsak atzemateko; berrikuspen horrek berresten du zuzen aplikatu direla finantza/kontabilitate arloko kontzeptuak; dirulaguntzen kargura jada egindako ordainketen zehaztapena (aurrerakinak, konturako ordainketak, ordainketa partzialak); aurkeztutako diru-sarreraren eta egindako egozpenaren berrikuspena; zalantzak ebaztea profil teknikoarekin eta ataleko burutzarekin; justifikazio kontuaren ondoriozko ordainketa-proposamena ematea profil teknikoari, zeinean agertuko baita superabitik badagoen ala ez.

Prozesua amaitzeko, profil teknikoak ebazpen proposamena tramitatzen du: ordaintzeko, likidatzeko edo ukatzeko proposamena, eta, inoizka, laguntza itzultzekoa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 24an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **10-23/PES-00033. Galdera, Caparrosoko abeltegizarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Caparrosoko abeltegizarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 3ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu Caparrosoko abeltegizarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruz (10-23-PES-00033). Hori dela-eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak txosten batean ageri diren erantzunak igortzen dizkio. Txosten hori (EH Bildu 230126 con censo actualizado.pdf) Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak egin du.

Lehenik esan behar da galdera parlamentarioaren testu osoan Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpena aipatzen dela. Ohartarazi behar da 2021eko azaroaren 22ko 163/2021 Autoaren bidez Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak erabaki zuela titularrek jarritako errekurtsioa baiestea eta zuzenbidez erabat deuseza deklaratzeko Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpena, eta demandatutako administrazioari eskatu

ziola epaia autoan bertan ezarritako moduan betetzeko.

Egintza hori betez, Ingurumeneko zuzendari nagusiak abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez ingurumen baimen integratua, lurzoru urbanizaezineko jarduerarako baimena eta ingurumen inpaktuaren adierazpena ematen baitira Caparrosoko udalerriko esnetarako behi-aziendaren instalaziorako eta hondakin organikoetatik biometanoa sortzeko plantarako. Instalazio horien titularrak Hibridación Termosolar Navarra SL eta Valle de Odieta SCL dira.

#### 1. galdera

Ustiategiaren titularrak esaten duen bezala, gaur egun dagoen abere-kopurua “7.200 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 700 aratxe eta 600 bigantxa (7.900 AzLU)” bada, Departamentuak (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko) uste al du errespetatzen ari dela Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenean –zeinetan Ingurumen Baimen Integratua onetsi baitzen– ezarritako muga?

#### 2. galdera

Zer ekintza edo jarduketa egiteko asmoa du Departamentuak, abeltegizarraren titularrak diren merkataritza-enpresek errespetatzen ez diren “esnetarako 7.200 behi heldu (6.500 inguru ekoizten eta 700 bat lehorte-aldian eta erditze-aurretiko aldian), eta emaldiko azken hilabeteetan dauden bigantxen eta 40 egunera arteko aratxkeen 600 buru” (7.620 AzLU) edukitzeko muga?

#### – 1. eta 2. galderen erantzuna:

Kontsultaren datan hau da departamentu honetan jasorik dagoen egoera:

23-01-26ko errolda	Plazak	AzLU unitarioa	AzLUak guztira	Baimendua (1383E/2021 Ebazpena)	Plazak	AzLU unitarioa	AzLUak guztira	Eskaera		
								Plazak	AzLU unitarioa	AzLUak guztira
Esne-behiak	5.089	1	5.089	Esne-behiak	7.200	1	7.200	7.900	1	7.900
Haragitarako aratxeak	128	0,4	51,2	Aratxeak	750	0,4	300	2.172	0,4	868,8
Esne-aratxeak	1.485	0,4	594							
Haragitarako zekorrak	—	—	—	Bigantxak	600	0,7	420	1.300	0,7	910
Esne-bigantxak	1.582	0,7	1.107,4							
Abelburuak, guztira	8.284			Abelburuak, guztira	8.500			11.372		
AzLUak, guztira	6.841,6			AzLUak, guztira	7.920			9.678,8		

Datu horien arabera 7.920 AzLUko edukiera dago baimenduta, eta ez 7.620 AzLUkoa, 2. galderan oker aipatzen den bezala.

Aurrean deskribatutako taulan egiazta daiteke abeltzaintzako instalazioak betetzen dituela baimendutako guztizko balioak, bai guztizko abelburu kopuruari bai AzLUei erreparatuta. Esnetarako bigantxa eta aratxeen kopuruak baimendutakoa gainditzen duela detektatu da. Hori ebaluatzean kontuan hartu behar da abeltzaintzako ustiategia bere azientaren ordezte fasean dagoela, ingurumen baimen integratua jaso eta gero, baimen horrek bide ematen baitio esnetarako abere helduen kopurua 7.200era handitzeko; eta guztizko AzLU kopuruak ez duela gainditzen baimendutakoa.

### 3. galdera

Zehapen-espeditierik ireki behar al zaie merkataritza-enpresa horiei Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenean –zeinetan Ingurumen Baimen Integratua onetsi baitzen– ezarritako mugak gainditu izateagatik?

– 3. galderaren erantzuna:

Egungo abere zentsuaren egoerak ez ditu urratzen Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpenean ezarritako baldintzak.

### 4. galdera

Departamentuak uste al du AzLU-kopurua Caparrosoko abeltzaintzaren titularrek eskatzen duten modu horretan aldatu daitekeela, hau da, “7.900 behi ugaltzaille, urte bat baino gutxiagoko 2.172 aratxe eta 1.300 bigantxa (9.678,80 AzLU) edukitzera pasatu daitezkeela?”

### 5. galdera

Eskatutako baldintza horietan, ez al du uste Departamentuak handitze hori bateraezina dela

oinarrizko legeria arautzen duen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuak –zeinak behi-azientak antolatzeke oinarritzko arauak ezartzen baititu– 16. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan eta lehen xedapen iragankorrean xedatutakoarekin?

### 6. galdera

Oinarritzko legeria hori ikusita, zer erabaki hartuko du Departamentuak? Ukatu egingen al da eskatutako Ingurumen Baimen Integratuaren aldateta funtsezkoa?

– 4., 5. eta 6. galderen erantzuna:

Maiatzaren 30eko 17/2022 Foru Legearen bidez aldatu egin zen Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea. Aldaketa horretan hirugarren xedapen iragankor berria gehitu zen, hau dioena:

1. 2023ko maiatzaren 30era arte ez da eskabiderik hartuko, ez eta abeltzaintza-baimenik emanen ere, 1.250 AzLU baino gehiagoko edukiera duten behi-azientako abeltzaintza-ustiategiak jaritzeko.

2. Halaber, ez da eskabide berririk hartuko, ez eta baimen berririk emanen ere, jadanik badauden behi-azientako abeltzaintza-ustiategiak handitzeko, baldin eta handitzearen ondoriozko ustiategia 1.250 AzLU baino gehiagokoa izanen bada.

3. Aurreko apartatuetan ezarritako edukieramuga ordeztuko da estatu-araudiak oinarritzko gisa eta kasua bada ezartzen duenarekin, azken hori txikiagoa izanez gero.

Beraz, gaur egun, araudi horri jarraituz, ezin da ebatzi galderan aipatutako abeltzaintzako baimena.

Iruñean, 2023ko otsailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## 10-23/PES-00034. Galdera, orain arte Kattalingunek betetzen zituen eta orain Gizain Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuei eta NABIk bere gain hartzen dituen eginkizunei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, orain arte Kattalingunek betetzen zituen eta orain Gizain Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuei eta NABIk bere gain hartzen dituen eginkizunei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak idatzizko galdera egin du (PES-00034); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Zer enkargu egin behar zaio Gizaini eta zein fasetan dago? (Programak, funtzioak, profilak, arreta-lekuak, aurrekontuak, antolaketa...).

- Zein da zerbitzuaren egoera gaur egun?
  - Zerbitzua kudeatzeko kontratu-baldintzak.
  - Nola gauzatzen ari da zerbitzua?
  - Arreta deszentralizatua bulegoetan.
  - Eskaintzen ari diren zerbitzuak.
  - Arreta Iruñean.
  - Eta abar.

- Orain arte Kattalingunek egiten zituen zein eginkizun, nola eta zer langilerekin hartu behar ditu bere gain INAIk? Gaur egun, zein da eginkizun horien egoera, nor ari da horiek betetzen, nola eta zer prestakuntzarekin?

Lehenbiziko galderari dagokionez, Gizain Fundazioari egin behar zaion enkargua da Kattalingune – Nafarroako Gobernuko LGTBI+ Pertsonentzako Arreta Integraleko Zerbitzua kudeatzea.

Inola ere gutxietsi gabe foru parlamentarien banakako eskubidea, Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 14. artikuluari dagokionez, ezta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen ondoriozko eskubidea ere, jakinarazi behar dizut une hauetan NABI eta Gizain Fundazioa elkarlanean definitzen ari garela programak, eginkizunak, enkargua zehaztasunez bete ahal izateko profilak eta abarrekoak.

Behar duzun informazioa zehaztu eta gero, igorri ahalko dizugu, eta bere osoan argitaratuko da, administrazio prozedura ofiziala burutu bezain laster.

Bigarren galderari erantzunez, jakinarazten dizut Zerbitzuak jardunean jarraitzen duela eta Kattalingorri entitatea kontratatu dela zerbitzua kudeatzen jarraitzeko harik eta kudeaketa eredia osatu arte. Arreta eskaintzen da bulego guztietan, eta arreta ordutegia zerbitzuaren eskariari egokitzten ari da. Ordutegia aldatu egin daiteke eskaria handituz gero.

Azkenik, jakinarazi behar da INAI/NABI lehendik ari zela kolektibo eta entitateei arreta ematen, sustapen eta sentsibilizazio, komunikazio eta zabalkunde lanetan, araudi, plan eta protokoloak prestatzen, heziketa, ikerketa eta transbertsalitatea lantzen, bai Administrazioaren barruan bai toki entitateekin batera, LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetza sortu zenez geroztik. Izan ere, ekintza horiek INAI/NABI erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen urriaren 30eko 260/2019 Foru Dekretuan jasorik daude. Beraz, lanean jarraituko da foru dekretu horretan ezarritako eskumenen eremuan.

Zuzendariordetzan gaur egun dauden pertsonen prestakuntzari dagokionez, Funtzio Publikoko Departamentuak Nafarroako Administrazio Publikoko langileen hautapen edo sustapen prozesuetan ezartzen duen prestakuntza da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetz.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **10-23/PES-00035. Galdera, Kultur Eskubideei buruzko Legeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kultur Eskubideei buruzko Legeari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatzizko galdera egin du (10-23/PES-00035), jakin nahi baitu Kultur Eskubideen Legea dela-eta egiteke zer dagoen. Hona Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

TITULUAK	ARTIKULUAK	MUGARRIAK
<b>I. TITULUA.</b>	<b>XEDAPEN OROKORRAK</b>	
	<i>Eskubide kulturalen bermea eta sustapena</i>	Aurrekontua % 22 handitzea legegintzaldi honetan.
<b>II. TITULUA.</b>	<b>KULTURARAKO IRISPIDEA IZATEKO ETA BIZITZA KULTURALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA</b>	
<b><u>I. KAPITULUA.</u></b>	<b><u>Kulturarako irispidea izateko eskubidea</u></b>	
	<i>Kulturarako irispidea; Kulturarako irispide fisikoa; Kulturarako irispide birtuala</i>	<p>Museoak. Nafarroako Museoko aretoak egokitzea. Hitzarmenetan eta dirulaguntza-deialdien oinarrietan txertatzea, araudi honen zehaztapenekin (irekitzeko egutegia, doako egunak, etab.).</p> <p>Liburutegiak eta artxiboak. Internet bidezko zerbitzu eskaintza areagotzea. Liburu eta dokumentu funtsa digitalizatzea.</p> <p>Kulturaren Atari Digitala sortzea.</p> <p>Etengabe berrikusi eta eguneratzea tresna eta baliabide digitalak, esaterako artxiboak (culturana Navarra.es, liburutegien ataria, fototeka, artxibo irekiko funtsak, musikaren eta arte eszenikoen artxiboa...).</p> <p>Ekintza inklusiboak eta desgaitasuna duten pertsonen egokituak txertatzea programa berekietan.</p>
	<i>Kultur bitartekaritza</i>	<p>Kultur ekintza. Kultur bitartekaritzarekin lan egiten da zerbitzuaren programa guztietan: DNA, Antzerki Sarearen Zirkuitua, Landarte, Erriberriko Jaialdia, etab....</p> <p>Ondarea. Ondarearen Europako Jardunaldiak eta Arkeologiaren Europako Jardunaldiak garatzea. Eta ondarea berreskuratzeko lanetan zabalkunderako eta dinamizaziorako proposamenak txertatzen dira, batez ere ondasunak kokatuta dauden herrietako biztanleei zuzenduta. Adibidez, Loizuko Gizona, Valtierako Dorrea edo Irulegiko Eskua.</p> <p>Museoak. "Auzokoak gara", "9 eguzki" programak Nafarroako Museoan, erakusketa ibiltariak, bitartekaritza ekintzak Nafarroako Gobernuaren beste museo batzuetan (Karlismoaren Museoa) edo eskuratu berri diren obra garakideekin.</p> <p>Liburutegiak. Jarduerak adituekin, online programazioa, irakurketa errazeko interes zentroa, irakurketa klubak...</p>

<b>II. KAPITULUA.</b>	<i>Kultur adierazpenetarako irispidea</i>	
	<i>Nafarroako Kultur Ondareko ondasunak</i>	<p>Doako irispide publikorako mapatzea osatzea ondasun pribatuetan. Sarbideen katalogoa prestatzea webean, bisitaren ordutegia eta eraikinaren egoera adierazita.</p> <p>Bermatzen dira erakusketa publikoetarako mailegua eta ikerketa arlorako arreta (ekintzak Cordovillako biltegian).</p> <p>Nafarroako interes kulturalako ondasunen eta ondasun inbentariatuaren egoeraren azterketa egitea. Baliabide birtual gisa sartzea Kulturaren Atari Digitalean.</p>
	<i>Ondare immateriala</i>	<p>Sustraiak deialdia. Landarte programaren ikuspegia berrikustea, ondare immaterialarekin eta komunitate bakoitzaren bizimoldeekin elkarriketan dagoen kultur ekintza sustatuz.</p> <p>Zabalkunde ekintzak: dokumentalak prestatzea, 2023rako folklore programa berria egitea, eta abar.</p>
	<i>Artxiboak eta Dokumentu-ondarea</i>	<p>Artxibo Irekia handitzea, konfinamenduaren artxiboa, fototeka, musika ondareko obretarako irispide libreko fonoteka eta Artxibo Garaikidea izeneko programa gehituz.</p> <p>Dokumentu funts gehiago digitalizatu eta argitaratzea.</p> <p>Nafarroako pertsona ospetsuen funts pribatu gehiago eskuratzeko bilaketa eta harremanak.</p> <p>Erakusketen programa handitzea eta zabalkunde jarduerak antolatzea publiko orokorarentzat, adituentzat eta familientzat.</p>
	<i>Museoak eta bilduma museografiko iraunkorak eta arte plastikoak</i>	<p>Lege honetan ezarritako doakotasun kasuak betetzen dira zentro berekietan. Artikulu honetan ezarritakoa jasotzen da laguntzen deialdietan eta entitate pribatuekiko hitzarmenetan.</p> <p>Prestakuntzari dagokionez, Uharteko Arte Garaikideko Zentroan master bat sortzea sustatu da NUPekin eta EHUekin elkarlanean.</p> <p>Gogoeta prozesua "Arte oro garaikidea da" programaren bidez. "9 eguzki" programa berria.</p> <p>Jarduerak Karlismoaren Museoan, haurrentzako jarduerak barne.</p> <p>Artelan garaikideen erosketa berraktibatzea eta emakumezko ilustratzaileen funts bat eskuratzea.</p>

	<i>Liburua eta liburutegiak</i>	<p>Internet bidezko irismena handitzea. Irakurketa errazeko klubak egitea dibertsitate kognitiboa dutenentzat. Hitzarmenak eta jarduerak, Nafarroako elkarteekin batera: EDITARGIrekin eta Diego de Haro liburu-saltzaileen elkartearekin batera, azoka eta jardueretarako.</p> <p>Bibliobusa martxan jartzea Estellerrian, despopulazio arriskua duten, liburutegirik ez duten eta 6.000 biztanle inguru dituzten herrietara iristeko.</p> <p>Liburutegi Sarea handitzea, 6 herri gehituta: Arbizu, Aiegi, Cárcar, Zirauki, Orkoien eta Ultzama.</p> <p>Jarduerak egitea Sarean; adibidez, idazteko eta liburuak nola egiten diren ikasteko tailerrak.</p>
	<i>Nafarroako Zinemateka, zinemagintza eta ikus-entzunezkoak</i>	<p>Hainbat ziklo programatzea. Bitartekaritza barne. Zinematekaren programa Nafarroako hainbat herritan barna. Nafarroako zinemagileen obra berreskuratzea maila editorialean.</p> <p>Nafarroako produkzio ia osoa artxibatzea. Rooftop Cinema izeneko ekimena Baluartean. Zinemateka Iberiarren V. Topaketa egitea.</p> <p>Ikus-entzunezkoen arloko politikei esker filmaketak erakartzea. Proiektuak erakartzeko zerga-pizgarria hobetzea. Navarra Film Industry delakoa sortzea CLAVNA, Napar eta NICDOrekin batera, elkarlanean aritzeko, azoka profesionaletara elkarrekin joateko eta gida profesionala prestatzeko.</p>
	<i>Arte eszenikoak eta musika</i>	<p>Programa berekiak indartu eta zabaltzea, herri edo/eta espazio eszeniko gehiagotara iritsiz: SMADE, Kultur, DNA, Organo Zikloa, Erriberriko Jaialdia. Nafarroako musikaren eta arte eszenikoaren sustapenerako programa berriak sortzea: "Bira Nafarroan barna", "Oinak hodeietan".</p> <p>Navarra Music Commission delakoa sortzea musikaren alderdi profesionalaren eta amateurraren aholkularitzarako, sustapenerako eta prestakuntzarako.</p> <p>Departamentuak arte eszeniko eta musikaletako lanbide elkarteekin batera parte hartzea azoka nazionaletan (DFeria, BIME etab.).</p> <p>Programa bereki batekin parte hartzea Almagroko jaialdian (Nafarroa gonbidatutako erkidegoa izanda).</p> <p>Hirugarren sektoreko entitateei eta talde, konpainia eta lanbide elkartei laguntzak emateko deialdiak hobetzea, partidak handituz legegintzaldian zehar.</p> <p>Prestakuntzarako proiektuak egitea NL-NEZekin batera. Folklorearen Mahaia sortzea eta herri adierazpenak erakusteko programa bereki bat antolatzea.</p>



	<i>Kultur eta sorkuntza ekosistema</i>	<p>Talentu Gaztearen Saria sortzea, hogeita hamar urtetik beherako kultur ekintzaileak aintzatesteko.</p> <p>Europako funtsen bidezko laguntza-lerroak, hiriz kanpoko eremuetan jarduerak garatzeko eta kultur azeleratzaileak sortzeko.</p> <p>Inpaktu ekonomikoaren eta enpresen gaineko inpaktuaren azterketak egitea kulturaren sektorean, pandemia dela-eta.</p> <p>Kulturako lanbideen egoeraren diagnostikoa egitea.</p>
	<i>Kultur ekipamenduak</i>	<p>Nafarroako kultur instalazioen mapatzea egitea. Kultur ondasun eta zerbitzuen irisgarritasunari buruzko eskuliburua egitea. Irisgarritasun Plan Operatiboa egitea.</p>
<b>III. KAPITULUA.</b>	<b><u>Bizitza kulturean parte hartzea eta erabakiak hartzea</u></b>	
	<i>Bizitza kulturean parte hartzea. Erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea</i>	<p>Parte-hartzea sustatzen da Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren bitartez. Kultur sektoreek ordezkaritza dute kontseiluan, eta entitateek berek aukeratzen dituzte beren ordezkariak.</p> <p>Sektoreko entitate eta elkarteekin adostutako deialdiak.</p> <p>Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeko foroa garatzea.</p> <p>Harremanak izatea legegintzaldi honetan sortutako lanbide-entitate eta hirugarren sektoreko entitate berriekin. Osasun Departamentuarekin batera foroetan parte hartzea pandemia aldietan egin beharreko jarduketak zehazteko.</p> <p>Folklorearen Mahaia sortzea. Navarra Film Industry eta Navarra Music Commission delakoak sortzea sektorearekin batera.</p>

<b>III. TITULUA.</b>	<b>ARTE ETA LITERATUR SORKUNTZA ETA IKERKETA ZIENTIFIKOA</b>	
<b>I. KAPITULUA.</b>	<b>Sorkuntzarako eta ikerketarako askatasuna</b>	
	<i>Arte eta literatur sorkuntzarako askatasuna; Ikerketa zientifikorako askatasuna; Aurrerapen zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea; Egile eskubideak</i>	Kapitulu hau erabat betez lan egiten da, sorkuntzarako eta ikerketarako askatasuna errespetatuz, bai eta hartaz gozatzeko eskubidea ere.
<b>II. KAPITULUA.</b>	<b>Administrazio Publikoek arte sorkuntza eta ikerketa zientifikoa sustatu eta jendearenganatzea</b>	
	<i>Arte eta literatur sorkuntzaren eta ikerketa zientifikoaren sustapena eta jendearenganatzea; Ikerketa zientifikoari laguntzea; Aurrerapen zientifikoaren onurak sustatzea; Jardunaldi akademikoak eta dibulgaziokoak; Departamentuak sustatutako argitalpenak</i>	Nafarroako sortzaileen arte eta kultur sorkuntza ezagutarazteko jardunaldiak, zikloak eta jaialdiak antolatzea.  Ondarearen berreskurapenari eta zabalkundeari lotutako jardunaldi zientifikoak.  Liburutegien Sarean jarduerak garatzea; eta Atari Digitala edukiz hornitzea.  Argitalpen hauek garatzea: "Príncipe de Viana", "Fontes Linguae Vasconum", "Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra", "Trabajos de Arqueología de Navarra". Eta think tank-a garatzea.
<b>IV. TITULUA.</b>	<b>ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA KULTURAREN ARLOAN</b>	
	Gardentasuna; Kultur sektoreen profesionalizazioa	Gardentasunari buruzko araudira egokitzea.  Prestakuntza ekintzak garatzea; erakunde publikoek eta pribatuek elkarlanean azoka profesionaletan parte hartzea; arte eszenikoaren, musikaren eta ikus-entzunezkoen arloko lanbide erakundeentzako dirulaguntza lerroak handitzea.
	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa	Nafarroaren kultur garapena sustatzea, eta kultur zerbitzuen, baliabideen eta jardueren kalitatezko kudeaketa eraginkorra bultzatzea; horietarako irispidea berdintasunez izateko bideak jartzea, eta bermatzea pertsona guztiak baliatu ahal izanen direla Nafarroako bizitza kulturalean libreki parte hartzeko eskubideaz.  Kultur garapena helburu, elkarlanean aritzea beste entitate eta erakunde publiko eta pribatu batzuekin (NUKF, NUP, NU, Gobernuako departamentuak, beste autonomia erkidego batzuk eta Ministerioa).

<b>V. TITULUA.</b>	<b>NAFARROAKO KULTURAREN ETA ARTEEN KONTSEILUA</b>	
	<i>Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua</i>	Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren erregelamenduzko garapenari buruz legean ezarritakoa betetzea.
<b>VI. TITULUA.</b>	<b>FINANTZA ETA TRIBUTU ARLOKO XEDAPENAK</b>	
<b><u>I. KAPITULUA.</u></b>	<b><u>Kultur politiken finantzaketa</u></b>	
	Finantzaketa publikoa; Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak; Mezenasgoa	Dirulaguntza-deialdien lerroak aztertu eta garatzea aurrekontu-ekitaldi bakoitzean. Haiek egokitzea eta berrikustea.  Urtean bi deialdi egitea mezenasgoari heldu ahal dioten kultur proiektuen gizarte-interesa deklaratzeko.
<b><u>II. KAPITULUA.</u></b>	<b><u>Onura fiskalak</u></b>	
	<i>Onura fiskalak; Pizgarri fiskalak; Babesletza; Ikus-entzunezko produkzioak</i>	Ikus-entzunezkoen arloko pizgarriak hobetu eta handitzea. Arte eszeniko eta musikalen arloko pizgarri berriak sortzea.
<b><u>XEDAPENAK</u></b>	<b><u>Zerbitzu-gutunak</u></b>	
	<i>Zerbitzu-gutunak</i>	Egin da.
<b><u>XEDAPENAK</u></b>	<b><u>Nafarroako Kultura Kontseilua</u></b>	
	<i>Nafarroako Kultura Kontseilua</i>	Egin da.
<b><u>XEDAPENAK</u></b>	<b><u>Kulturaren Atari Digitala</u></b>	
	<i>Nafarroako Kulturaren Atari Digitala ezartzea</i>	Egin da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko apirilaren 14an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **10-23/PES-00036. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren ekintzak, “Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoia” programa-akordioan jasotakoak, betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren ekintzak, “Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoia” programa-akordioan jasotakoak, betetzeari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioko kide Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoia” programa-akordioan jasotako neurriak betetzeari buruz (10-22/PES-00036). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz jakinarazten diona:

“Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoia” programa-akordioan jasotako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren ekintzen betetze maila % 89,47koa da, jasotako 38 neurrietatik jada 34 baitaude amaituta.

Zuzendaritza nagusien arabera xehakaturata:

– Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusia: jasotako 13 neurrietatik 12 daude amaituta. Horrenbestez, betetze osoaren portzentajea % 92,31 da.

– Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia: jasotako 11 neurrietatik 10 daude amaituta. Horrenbestez, betetze osoaren portzentajea % 90,91 da.

– Telekomunikazioetako de Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia: 14 neurrietatik 12 daude amaituta; beraz, betetze osoaren portzentajea % 85,71 da.

Gainerako lau neurriak jada hasita daude eta betetzen ari dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedaturikoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

## **10-23/PES-00037. Galdera, , Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen garapenean eta aplikazioan egindako aurrerabideari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen

garapenean eta aplikazioan egindako aurrerabideari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo andreak idatzizko galdera egin du (10-23/PES-00037) zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko 18/2019 Foru Legearen garapenean eta aplikazioan egindako aurrerabideaz. Hona Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen xedea honako hau da: "Nafarroan kirol arloko lanbide jakin batzuetan hasteko eta aritzeko oinarrizko alderdiak arautzea. Berariaz adieraziko da zeintzuk diren lanbide horiek, lanbide bakoitzaren jardun-eremu funtzional orokorra ezarriko da, eta aditzera emanen da lanbide horietan sartzeko zer kualifikazio eskatzen den".

Foru lege horren xedapen iragankorretan eta azken xedapenetan hainbat data jasotzen dira, halako moduan non hortik aitzina zeharo galdagarriak izanen baitira foru legean jasotako betebeharrak. Hala, 2021eko irailaren 1a izanen zen azken eguna kirol-lanbideetan aritzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko, Nafarroako kirol-federazioek federazio-arauak foru lege horretara egokitzeko eta, azkenik, lanbide horietan sartzeko eskatzen diren kualifikazioak exijitzeko. Kirol arloko profesionalen lehen laguntzako kualifikazioa exijitzeari dagokionez, legeak ezarri zuen 2020ko abenduaren 31 izanen zela azken eguna.

Betekizun horiek egiaz bete ahal izan zitezkeen behar-beharrezkoa zen erregelamendu bidez garatzea apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea, honako arau hauek onetsita:

– Nafarroan kirol arloko lanbideetan aritzeko lehen laguntzako prestakuntza akreditatzeari buruzko Foru Dekretua.

– Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko Foru Dekretua.

– Nafarroako Kirolaren Erregistroari buruzko Foru Dekretua.

COVID-19ak 2020ko martxotik aitzina eragindako osasun krisiak eta alarma-egoeraren deklarazioetatik heldu ziren neurri murriztaileek eragotzi zuten behar bezala izapidetzea foru lege horretako erregelamendu-xedapenak edo administrazio-antolamendua egokitzea ezarri beharreko prozesuetara. Xedapen horiek izapidetzeko beharrezkoa zen Eskubide Sozialetako Departamentuarekin (Nafar Lansare), Osasun Departamentuarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin aritzea lankidetzan, haien eskumenei eragiten baitie, baina departamentu horiek beren jarduketan bolumen handi bat bideratu behar izan zuten Nafarroan osasun krisia kudeatzera, eta ezin izan zituzten behar ziren baliabide guztiak bideratu lankidetzara horretara.

Ondorioz, ekainaren 17ko 6/2020 Foru Lege-dekretuaren azken xedapenetako laugarrenaren bidez aldatu egin zen Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea. Foru lege horretan aldatu ziren apartatuen artean honako hauek zeuden:

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorra, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen Nafarroako Kirol Federazioek beren erregelamendua foru legean ezarritakoari egokitzeko zeukatzen epea.

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorra, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen Nafarroako Kirol Federazioek beren erregelamendua foru legean ezarritakoari egokitzeko zeukatzen epea.

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorra, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen egun hori baino lehen kirol arloko lanbideren batean jardun zirenek eta egun horretatik aurrera lanbide horietakoren batean jardun nahi zutenek aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epea.

– Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen azken xedapenetako laugarrenaren 2. apartatua, halako moduan non 2022ko irailaren 1era bitarte luzatu baitzen foru lege horren bidez araututako lanbideetan aritzeko gaitasuna ematen duten lanbide-kualifikazioak exijitzen hasteko epea.

2022an, Nafarroan kirol arloko lanbideetan aritzeko lehen sorospenteko hasierako prestakuntza egiaztatzea arautzen duen ekainaren 15eko 63/2022 Foru Dekretua onetsi zen (2022ko 130. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 1ekoan).

2022ko irailaren 1era iritsita, artean onetsi gabe zeuden Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko Foru Dekretua eta Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen Foru Dekretua.

Hortaz, 2022ko irailaren 1etik aitzina, apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean eskatzen diren titulazioak eta lanbide-kualifikazioak dauzkatenek soilik jardun dezakete foru lege horren bidez araututako kirol arloko lanbideetan. Ondorioz, ez zenez egun hori baino lehen araubiderik onetsi lanbide horietan jardun ahal izateko laneko esperientziari esker edo prestakuntzako bide ez formalen bidez, gertatzen dena da kirol arloko lanbide horietan egun

jardun duten pertsonarik gehien-gehienak ezindurik daudela horretarako. Une honetan, dagoen eskariari behar bezala erantzuteko foru legearen arabera eskatu beharreko kualifikazioa duten profesionalen faltari gehitu behar zaizkio prestakuntza ofizialeko eskaintza eskasa eta lanbide-gaitasunen errekonozimendu-gailuak ezartzeko zailtasuna. Gauzak horrela, Nafarroan kirol arloa garatzeari eta funtzionatzeari dagokienez kalte konponezina eragin dezake foru legean ezarritako titulazioak eta lanbide-kualifikazioak exijitzeak, baldin eta ez bada lehenago onesten gaikuntza-araubide hori: Bai kirol entitateen esparruan, bai kirol zerbitzuak ematen dituen enpresa-sektorean.

Horrenbestez, uste dugu behar-beharrezkoa dela Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko gaikuntzen araubideari buruzko foru dekretu bat onestea, foru legean ezarritako lanbide-kualifikazioak egiaz eskatu aitzin.

Bestalde, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzeko foru dekretua ere onetsi ez denez, interesdunek ezin dute erregistroan izena emateko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu.

Beraz, beharrezkoa da Nafarroako Kirolaren Erregistroaren araudia onestea, halako moduan non erantzukizunpeko adierazpena exijitzen has-teko epeak egokituko baitzaizkie foru legean lanbideetan aritu ahal izateko ezartzen diren lanbide-kualifikazioak exijitzen hasteko epeei.

Kultura eta Kirol Departamentua bi foru dekretu horiek izapidetzen hasi zen eta jada 2019an aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egin zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoa.

Kontuan izanik zer izapide egin behar ziren bi foru dekretuak onesteko (jendurreko informazioaren izapidea, aginduzko txostenak eta oroitidazkiak, sindikatuekiko kontsulta, etab.), eta kontuan izanik 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak eginen zirela (horrek eragina izanen zuen Nafarroako Gobernuaren eta haren departamentuaren ohiko jardunean), beharrezkotzat jo zen epeak 2024ko urtarrilaren 1era arte luzatzea, aipatu bi foru dekretuak onesteko behar adina denbora hartzeko.

Aurrean xedatutakoari jarraikiz, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen azken xedapenetako hirugarrenaren bidez aldatu egin zen Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea, halako moduan non idazki honetan adierazitako epeak 2024ko urtarrilaren 1era arte luzatu ziren.

Horrenbestez, hau ondorioztatzen ahal da:

– Dagoeneko, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea garatuz, ekainaren 15eko 63/2022 Foru Dekretua onetsi da, Nafarroan kirol arloko lanbideetan aritzeko lehen sorospenteko hasierako prestakuntza egiaztatzea arautzen duena.

– Kultura eta Kirol Departamentuak aurreikus-ten du 2023an onestea Nafarroan kirol arloko lanbideetan hasteko eta jarduteko gaikuntzen araubide-a ezarriko duen foru dekretua eta Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautuko duen foru dekretua. Hori guztia, apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean aurreikusitako epeak betetzeari dagokionez.

Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen errege-lamenduzko garapena Nafarroako Kirolaren Kontseiluaren osoko bilkuretan aztertu izan da. 2021eko abenduaren 13ko bileran, aktan ageri denez, Kontseiluko zenbait kidek gaiari buruzko iritzia azaldu zuten, eta ondorioztatu zen oreka bilatu behar dela, lanbide batean aritu nahi duten guztiek titulu eta prestakuntza egokiak izan ditzaten; baina, horrekin batera, komeni dela prestakuntza hori ez duten pertsonak ere aritu ahal izatea lan osagarrietan edo kirol arloko lankidetzan hutsean, jakina baita Nafarroako kirol sareari boluntarioek eta titulu ofizialik gabeko pertsonak eusten diotela neurri handian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 21ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## 10-23/PES-00038. Galdera, jakiteko Gizain Fundazioan lanean ari diren langileetatik zenbat dauden AUNA proiektuari lotuta.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko Gizain Fundazioan lanean ari diren langileetatik zenbat dauden AUNA proiektuari lotuta. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du AUNA proiektuari lotuta dauden Gizain Fundazioko langileei buruz (10-23/PES-00038). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Gaur egun, AUNA proiektuari lotuta, zenbat pertsona ari dira lanean Gizain Fundazioan?

Gaur egun, AUNA proiektuari lotuta, 52 pertsona ari dira lanean Gizain Fundazioan:

- 2 pertsona 0 paketeen (zuzendaritza eta administrazioa).
- 18 pertsona 1. paketeen (DSBE/BGDS prestazioen kudeaketa integratua tramitazio-unitateen bidez).
- 32 pertsona 2. paketeen (gizarte zerbitzuen eta enpleguaren arloko arreta integratua, laguntza konplexuak behar dituzten kasuetan).

Horiek guztiek aldi baterako kontratuak dituzte, 406 ereduaren arabekoak: iraunaldi mugatukoak, Next Generation funtsek finantzaturako programei lotuak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzekoak.

2.- Nola egin da pertsona horien hautaketa?

Gizain Fundazioa, fundazio publikoa den aldetik, foru sektore publiko instituzionaleko parte da (11/2009 Foru Legea, NFK-ko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa). 11/2009 Foru Legearen 67.3 artikulua arabera, "fundazio publikoak arloa dela-eta eskumena duen departamentuaren tutoretzapean egonen dira, eta ordenamendu juridiko pribatuaren bidez-

ko eraientza izanen dute, deusetan galarazi gabe foru lege honetan eta kontratazioari, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen eta kontratuen kontrolari buruz aplikatzeko den araudi administratioboan ezarritako berezitasunak".

Gizain Fundazioko langileen hautaketa-prozesu eta barne-igoera guztietan publikotasunaren, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak aplikatzen dira. Hala, Gizain Fundazioaren hitzarmen kolektiboaren 2.2 artikulua arabera, "lanpostuen deialdia eginen da erakunde publikoetako ordezte tasari eta enplegurako sarrerari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera. Langileak hautatzeko protokolo batean arautuko dira deialdien eta aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketa, barne-sustapeneko sistemak, langileak hautatzeko organoak eta langileak hautatzearekin zerikusia duten beste gai guztiak. Protokoloa hitzarmen honen eranskin gisa onetsi da". Zehazki, 2022ko otsailaren onetsitako "Langileak hautatzeko protokoloa" da.

AUNako langileak hautatzeko prozesuak hautapen-protokolo horren arabera egin dira. AUNako langileak hautatzeko eta kontratatze prozesuetan, gainera, apirilaren 6ko 77/2022 Foru Aginduak onetsitako plan honetako neurriak aplikatu dira: Iruzuraren kontrako neurrien Plana, Eskubide Sozialetako Departamentuan, haren erakunde autonomoetan eta Gizarte Zerbitzu Publikoen Kudeaketarako Nafarroako Fundazioan (Gizain Fundazioa) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) kargura finantzaturako proiektuen kudeaketaren esparruan.

Horrela:

– AUNako langileak hautatzeko deialdi guztiak aditzera eman dira GIZAIN Fundazioaren webgunean eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.

– Kontratatu beharreko profil guztien definizioan eta deialdien diseinuan parte hartu dute Gizain Fundazioak berak, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuko Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak.

– Prozesu guztiak prozedura objektibo batean oinarrituta garatu dira, azterketa, elkarriketa eta

merezimenduen (esperientzia eta prestakuntza) puntuaketa eginez.

– Deialdi guztiak eta egindako proben emaitzen eta kontratazio hurrenkeraren zerrenda guztiak Gizain Fundazioaren webgunean argitaratuta daude:

- Enplegu eskaintza - Zuzendaritza teknikorako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/81-oferta-empleo-convocatoria-direccion-tecnica-proyecto-auna-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - Administrazio laguntzarako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/82-oferta-empleo-convocatoria-apoyo-administrativo-auna-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - 1. paketeko koordinatzaile izateko deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/83-oferta-empleo-convocatoria-coordinador-paquete-1-proyecto-auna-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - Laguntza teknikoaren arduradun izateko deialdia (enplegu arloa) - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/84-oferta-empleo-convocatoria-responsable-soporte-tecnico-proyecto-auna-ambito-empleo-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - Laguntza teknikoaren arduradun izateko deialdia (gizarte arloa) - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/85-oferta-empleo-convocatoria->

<responsable-soporte-tecnico-proyecto-auna-ambito-social-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - DSBEa/BGDSa kudeatzeko 5 gizarte langilerentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/103-oferta-empleo-convocatoria-5-trabajadoras-sociales-gestion-rgimv-proyecto-auna.html>

- Enplegu eskaintza - DSBEa/BGDSa kudeatzeko 12 administratiblerentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/102-oferta-empleo-convocatoria-12-administrativas-gestion-rgimv-proyecto-auna.html>

- Enplegu eskaintza - GIZARTE arloko 12 kasu-kudeatzaileentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/104-oferta-empleo-convocatoria-12-gestoras-de-caso-ambito-social-proyecto-auna.html>

- Enplegu eskaintza - Enplegu arloko 16 kasu-kudeatzaileentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/105-oferta-empleo-convocatoria-16-gestoras-de-caso-ambito-empleo-proyecto-auna.html>

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 10ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca



## 10-23/PES-00039. Galdera, Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa abian jartzeko Gizain Fundazioan diren langileei buruz (10-23/PES-00039). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

Hasiera batean, zenbat pertsona subrogatu zituen Gizain Fundazioak Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa abian jartzeko?

BELOSO BHZko langileen subrogazioa 2019ko uztailaren 1ean egin zen.

Subrogatutako pertsonak (XILEMA enpresa lagatzailearen langileak) 36 izan ziren. Hainbat kontratu mota eta egoerarekin subrogatu ziren. Zehazki, baldintza hauekin:

	PERTSONAK	LANALDIAK	28,60
Zentroko koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	7,5
Lantaldeko koordinatzailea + Familietan esku hartzeko teknikaria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
Garbitzailea eta sukaldaria	Pertsona bat % 70eko lanaldiarekin Pertsona bat % 80ko lanaldiarekin	1,5	
Psikologoa	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin eta pertsona bat % 50ekoarekin	2,5	
Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
Prestakuntzako teknikaria	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
Hezitzaileak	19 pertsona % 100eko lanaldiarekin 3 pertsona % 70eko lanaldiarekin	21,10	21,10

Beste 3 pertsona % 100eko lanaldiarekin subrogatu dira egoera hauetan: amatasuneko bajaran (pertsona bat), haurra zaintzeko eszedentzian (pertsona bat) eta borondatezko eszedentzian (pertsona bat). 2 pertsona, hurrenez hurren % 31,50eko eta % 30eko lanaldiarekin, ordezkapenak egiten.

Gaur egun, zenbat pertsona ari dira lanean Fundazioan Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroari lotuta?

Gaur egun pertsona hauek ari dira lanean (gehiegizko okupazioagatik indargarriak, eszedentzian edo bajaran daudenak etab. kontuan hartu gabe):

	<b>PERTSONAK</b>	<b>LANPOSTUAK</b>	<b>27,5</b>
Zentroko koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	7,5
Administraria	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
Lantaldeko koordinatzailea + Familietan esku hartzeko teknikaria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
Garbitzailea eta sukaldaria	Pertsona bat % 70eko lanaldiarekin Pertsona bat % 80ko lanaldiarekin	1,5	
Psikologoa	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
Prestakuntzako teknikaria	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
Hezitzaileak	19 pertsona % 100eko lanaldiarekin 2 pertsona % 50eko lanaldiarekin	20	20

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **10-23/PES-00040. Galdera, premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programa abian jartzeko Gizain Fundazioan diren langileei buruz (10-23/PES-00040). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Hasiera batean, zenbat pertsona subrogatu zituen Gizain Fundazioak Premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programa abian jartzeko?

2019ko uztailaren 1ean Xilemako 37 langile subrogatu ziren 12/14 urte arteko Adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroaren funtzionamendurako.

Subrogatutako pertsonetako batek (familietan esku hartzeko teknikaria, % 100eko lanaldiarekin)

premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programa garatzea du eginkizuna, Beloso Behaketa eta Harrera Zentroari lotuta.

Gaur egun, Fundazioan zenbat pertsona ari dira lanean Premiazko familietan adingabeen balorazio integrala egiteko programari lotuta?

Lehen bezala, gaur egun ere familietan esku hartzeko teknikari bat (gizarte langile bat) ardura-

tzen da programa honetaz, % 100eko lanaldiarekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## **10-23/PES-00041. Galdera, Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain Fundazioan diren langileei buruz (10-23/PES-00041). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

1. - Hasiera batean, zenbat pertsona subrogatu zituen Gizain Fundazioak Lizarrako Gizarte Zerbitzuen zentroa abian jartzeko? Xehakatu datuak bermatutako prestazio bakoitzaren arabera (HNAT, GLT eta GIBLIT).

Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroko langileen subrogazioa 2019ko maiatzaren 1ean egin zen.

Pertsona hauek subrogatu ziren (PAUMA enpresa lagatzailearen langileak):

		PERTSONAK	LANPOSTUAK	13,66
GZZ	Koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2,16
	Administraria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Garbitzailea	Pertsona bat % 20ko lanaldiarekin	0,16	
GLT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
HNAT	Lantaldeko koordinatzailea (PS)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4,50
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
GIBLIT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin (lanaldi murrizketa)	1	3
	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin (lanaldi murrizketaren estaldura)	1	
	Gizarte hezitzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa Psikologoa	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin (lanaldi murrizketa)	1	
		Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin (lanaldi murrizketaren estaldura)	1	

2.- Gaur egun, zenbat pertsona ari dira lanean Gizain Fundazioan Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroari lotuta? Xehakatu datuak bermatutako prestazio bakoitzaren arabera.

Gaur egun pertsona hauek ari dira lanean Gizain Fundazioan Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroari lotuta:

		PERTSONAK	LANPOSTUAK	14,70
GZZ	Koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2
	Administraria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
GLT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
HNAT	Lantaldeko koordinatzailea (PS)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	5,70
	Gizarte hezitzailea	3 pertsona % 100eko lanaldiarekin	3	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 70eko lanaldiarekin	0,7	
GIBLIT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	3
	Gizarte hezitzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa Psikologoa	Pertsona bat % 80ko lanaldiarekin	1	
		Pertsona bat % 20ko lanaldiarekin	1	

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2023ko martxoaren 10ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 10-23/PES-00042. Galdera, Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroari lotuta Gizain Fundazioan ari diren langileei buruz (10-23/PES-00042). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Gaur egun, zenbat pertsona ari dira lanean Gizain Fundazioan Tafallako Gizarte zerbitzuen zentroari lotuta? Xehakatu datuak bermatutako prestazio bakoitzaren arabera.

Gaur egun (2023ko otsailaren 13an) pertsona hauek ari dira lanean Gizain Fundazioan Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroari lotuta:

		PERTSONAK	LANPOSTUAK	14,20
GZZ	Koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2,20
	Administraria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Garbitzailea	Pertsona bat % 20ko lanaldiarekin	0,20	
GLT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
HNAT	Lantaldeko koordinatzailea (PS)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	5,5
	Gizarte hezitzailea	3 pertsona % 100eko lanaldiarekin	3	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
GIBLIT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2,5
	Gizarte hezitzailea	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
	Psikologoa	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	

2.- Nola egin da pertsona horien hautaketa?

Eskubide Sozialetako kontseilariaren martxoaren 30eko 75/2022 Foru Aginduaren bidez Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroa sortu zen, eta hura kudeatzeko mandatua Gizarte Zerbitzu Publikoen Kudeaketarako Nafarroako Fundazioari

(Gizain Fundazioa) emateko agindu zen 2022ko maiatzetik azarora bitarteko aldirako.

Honela bildu dira zentroko langileak:

a. Alde batetik, zerbitzu hauetan lehendik ari ziren HNAT, GLT eta GIBLIT talde espezializatuetako langileen subrogazioaren bidez. Zehatzago, honako hauek subrogatu dira:

		PERTSONAK	LANPOSTUAK	12,20
GZZ	Garbitzailea	Pertsona bat % 20ko lanaldiarekin	0,20	0,20
GLT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
HNAT	Lantaldeko koordinatzailea (PS)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	5,5
	Gizarte hezitzailea	3 pertsona % 100eko lanaldiarekin	3	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
GIBLIT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2,5
	Gizarte hezitzailea	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	
	Psikologoa	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	

b. Bestetik, zentroa sortzean 2 lanpostu berri sortu dira: 1) Tafallako GZZko koordinatzailea; 2) Tafallako GZZko administraria.

2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 20.Bat.6 artikulua justifikatzen du lanpostu horiek sortzea. Lanpostu horietan ari diren pertsonak hautatzeko, Gizain Fundazioaren hautapen protokola aplikatu zen (10-23/PES-00038 galderaren erantzunean aipatzen dena).

- Tafallako GZZko koordinatzaile lanpostuan dagoen pertsona hautatzeko, barne sustapeneko prozesu bat egin zen, protokolo horretan jasotako moduan. Gizain Fundazioko langile guztiei igorritako zirkular baten bidez eman zen aditzera, eta abian jarri zen prozesua: azterketa –% 60–, elkarriketa –% 10– eta merezimenduak –% 30–. Hiru langilek parte hartu zuten. Puntuazio handiena lortu zuen langileak hartu zuen lanpostua.

- Administrari lanpostuan dagoen pertsona hautatzeko, Gizain Fundazioko administrazio lanpostuak aldi baterako betetzeko administrariak bilatzeko deialdi bat argitaratu zen (publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen

arabera, eta Gizain Fundazioaren hautapen protokola aplikatuta):

- Hautapenerako deialdia argitara eman zen GIZAIN Fundazioaren webgunean eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez (2022ko martxoaren 28an).

- Prozesua prozedura objektibo batean oinarrituta garatu zen, azterketa, elkarriketa eta merezimenduen (esperientzia eta prestakuntza) puntuaketa eginez, aipatu protokoloan ezarrita dagoen bezala.

- Deialdia eta egindako proben emaitzen eta kontratazio hurrenkeraren zerrendak Gizain Fundazioaren webgunean argitaratuta daude:

Gizain Fundazioko administrariaren deialdia

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2023ko martxoaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 10-23/PES-00043. Galdera, Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain fundazioan diren langileei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroa abian jartzeko Gizain Fundazioan diren langileei buruz (10-23/PES-00043). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Hasiera batean, zenbat pertsona subrogatu zituen Gizain Fundazioak Tuterako Gizarte zerbitzuen zentroa abian jartzeko? Xehakatu datuak bermatutako prestazio bakoitzaren arabera (HNAT, GLT eta GIBLIT).

Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroko langileen subrogazioa 2019ko maiatzaren 1ean egin zen.

Pertsona hauek subrogatu ziren (PAUMA enpresa lagatzailearen langileak):

		PERTSONAK	LANPOSTUAK	16,5
GZZ	Koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2
	Administraria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
GLT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
HNAT	Lantaldeko koordinatzailea (PS)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	6
	Gizarte hezitzailea	3 pertsona % 100eko lanaldiarekin	3	
	Psikologoa	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
GIBLIT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	4,5
	Gizarte hezitzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	3 pertsona % 50eko lanaldiarekin	1,5	

2.- Gaur egun, zenbat pertsona ari dira lanean Gizain Fundazioan Tuterako Gizarte zerbitzuen zentroari lotuta? Xehakatu datuak bermatutako prestazio bakoitzaren arabera.

Gaur egun (2023ko otsailaren 13an) pertsona hauek ari dira lanean Gizain Fundazioan Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroari lotuta:

		<b>PERTSONAK</b>	<b>LANPOSTUAK</b>	<b>17,5</b>
GZZ	Koordinatzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	2
	Administraria	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
GLT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	5
	Gizarte hezitzailea	2 pertsona % 100eko lanaldiarekin	2	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 23ko lanaldiarekin Pertsona bat % 77ko lanaldiarekin	1	
HNAT	Lantaldeko koordinatzailea (PS)	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	7
	Gizarte hezitzailea	4 pertsona % 100eko lanaldiarekin	4	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
GIBLIT	Lantaldeko koordinatzailea (GL)	Pertsona bat % 54ko lanaldiarekin	1	5,5
	Gizarte hezitzailea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Gizarte langilea	Pertsona bat % 46ko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 100eko lanaldiarekin	1	
	Psikologoa	Pertsona bat % 50eko lanaldiarekin	0,5	

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca